254. zk.

Bigarren aroa

Ekainak 1
2015

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Erreportajea
Ezezagunok
antzerki taldea

6. orrialdea

Erreportajea
Herri Bazkaria,
hobekuntzaren bila

13. orrialdea

KOLPE LATZA PLAY-OFFean

3 Elkarrizketa Fernando San Martin Euskara Udal Ordezkariaren agurra
4 Elkarrizketa Monica Alday, Bioterrako zuzendaria
5 Caser Egitarau bereziak San Martzial jaietan Caser Anakan
7 Informazioa Bidasoa Institutuaren eskaintza
8 Kirolak Nesken eskubaloia sustatzen ari da Bidasoa
10 Elkarrizketa Lorena Pidal, Gipuzkoako itxaropen telefonoa
11 Haurren Lanak El Pilar HH. Sara O´Connel
12 Gazteen Lanak San Vicente de Paul. DBH2
14 Gazte infor
15 Agenda

AVIA
Gasolindegia
VRANZV, S.A.
Avda. Navarra, 18 - 20304 IRUN
Tels.: 943 62 51 83
Fax: 943 63 04 98
javier @avia-uranzu.com
www.estaciondeserviciouranzu.com
Javier Aguirre Lasa
Gerente

Gazteekin, hitzetatik ekintzetara

Iñaki Goikoetxea

Lan kontuengatik, Euskadi mailan gazteekin lan egiten duten eragile eta pertsonen iritziak entzuteko aukera daukat: politikariak, teknikariak, elkarteetan lan egiten dutenak, gazteak... kolore guztietako alderdietakoak eta euren artean pentsaera ezberdinak dituztenak. Aniztasun horretan, ordea, han eta hemen mezu bat errepikatzen da: "Gazteak gizartearen etorkizuna dira eta aukerak behar dituzte". Komunikabideetan ere, ia egunero, gazteok bizi dugun egoeraren inguruko albisteak irakurtzen, entzuten edo ikusten ditugu: etorkizunik gabeko belaunaldia, lan prekarietatea, etxebizitzaren arazoa... Eta nola ahaztu, egin berri diren udal eta foru hauteskundeetan hautagaiek asko hitz egin dute gazteen inguruan. Dudarik gabe gaia pil-pilean dago, baina oihartzun mediatiko honek eragin praktikoa dauka?

Zoritxarrez, ez. Euskal erakundeetan, baita Estatu mailan ere, gazteria sailak administrazioaren zati xumeak dira eta, gehienetan, hezkuntza, kultura, prebentzio komunitarioa edo kirola bezalako eskumenekin nahasiak ikusten ditugu. Irungo Udalean gazteria politikak hezkuntza eta kulturarekin batera daude; kultura eta kirolarekin Gipuzkoako Foru Aldundian, eta kirolarekin Eusko Jaurlaritzan. Honek zer eragin dauka? Bada, gai hauek jorratzen dituzten zinegotzi, zuzendari edo teknikariek denboraren tarte handiena beste zereginetara eskaintzen dietela eta, askotan, gazteriari leku sinbolikoa ematen zaiola soilik. Administrazioko beste departamentuak ere ez dira gazteriaz asko gogoratzen, eta enplegu edo berdintasun planak aurrera eramaten dituzte gazteen ekarpenak jaso gabe.

Tortillari buelta eman beharko genioke, eta gazteria saila indartsuak sortu: gazteria politikei benetako garrantzia eman nahi bazaie, instituzioek arreta handiagoa jarri eta baliabide gehiago bideratu beharko lituzkete; ezin dira ekimenak egin aurrekonturik gabe edo teknikarien babesik gabe, biak ezinbestekoak dira. Batzuek defendatzen dute gazteria politikak zeharkakotasunez landu behar direla, eta arrazoia izan dezakete, baina oro har honek ez du arrakasta handirik izaten. Gazteria politikek azken urteetan berdintasun arloek izan duten bultzada jarraitu beharko lukete eta, Administrazioak gazteengana hurbildu nahi baditugu, hauen ikuspuntuak jaso eta kontutan izan. Esate baterako, zergatik ez beka batzuk sortu gazteria arloan langile gazteak izateko? Adibideekin jarraituz, Irunen Gazte Artean ekimena edo gazteentzako aurrekontu parte-hartzaileak izan ditugu, baina egiteko asko badago oraindik. Orain dela gutxi berezko Gazte Kontseilua sortu dute Hernanin, ezingo genuke ideia hau edo interesgarriak diren beste batzuk gure hirira ekarri?

Irun atzo Irun gaur

Bidasoa kalea

IUA: 363

Santiago kalearen amaieratik hasi eta Iparralde hiribidera doana da gaur egun, baina lehen Kostorbeko meategi-trenbidearen geltokiraino iristen zen. Udalak 1903an Bidasoa izena onartu zuen, Eusebio Pedrós zinegotziak proposatuta.

Izen gutxi izango dira Iruni ibai honena bezain lotuta daudenak; izan ere, bizitza ekonomiko, sozial eta politikoan Bidasoak sekulako garrantzia izan baitu.

Ibaia Nafarroako Izpegin jaiotzen da, itsas mailatik 672 metrotara. Ibilbidearen hasieran Baztan izena du. Arana ibaiarekin bat egin eta Mugairi auzoa igaro ondoren, Bertizaranatik Bidasoa deritzo. 60 km ibili eta gero Kantauri itsasora isuritzen da.

IUA: 41292

Endarlatsatik aurrera bi estatuen arteko muga markatzen duen ibaia izaki, historiaren hainbat pasarte handiren eta txikiren lekuko izan da.

XX. mendean zehar SANTIFER (Vda. de Fernández) aduana agentziaren biltegiak izan ziren kale honen erreferente. Gerra Zibilean suntsitu ondoren, 1946an berreraiki zituzten. Agentziak Fermin Calbeton kalean egoitza nagusia zuen, baina autoen inportazioak ezagutu zuen gorakada itzelarengatik, biltegiak altxatu behar izan zituzten. Goiko argazkian, 1956an inportatzen zituzten modako Citroën 2CVak. Behean, 1996ko irudia, etxeak egiteko biltegiak eraitsi baino lehenagokoa.

Iturria: José Monje.
Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Xabier Kerexeta
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
Baseclick S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN
Tel: 673 39 84 57

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Fernando San Martin, funtzioko Euskara Udal Ordezkaria

“Euskarak jendea limurtu behar du erabilera sustatzeko”

Luzeak egin zaizkio bere bulegoko atea azken aldiz ixteko unearen aurreko egunak. Duela 20 urte iritsi zen Udalera. Hasieran, Garapenerako Lankidetzako Ordezkaria izan zen. 1999an Alberto Buenek Kultura eta Euskara Arloen Ordezkari izendatu zuen. Ordutik euskararen inguruko udal politikaren arduraduna izan da. “Bitartekoak finkatuta daude, baina euskara sustatzeko lana iraupen luzeko lasterketa da”. Hauxe bere agur esaldia.

- Euskararen inguruko politikaren lema hartu zuen lehen sozialista izan zinen. Nolako harrera egin zizun gizarteak?

Ordura arte nazionalisten esku egon zenez, baliteke zenbait irundarrek pentsatzea horrela jarraitu behar zuela. Nik ez nuen inolako bazterketarik nabaritu. Norbait beldur bazen, beldur hori funtsgabea zela garbi geratu da, euskararen inguruko politika ia beti erabateko adostasunez garatu dugu eta.

- Eta alderdian euskara bultzatzearekiko errezelorik igarri zenuen?

Ez, bai alderdiak, baita alkateak ere, askatasun osoz lan egiten utzi didate. Are gehiago, kontrakoa gertatu da: euskararen inguruko politika egiteko gai ginela erakutsi nahi genuen.

- Zein izan zen zure erronka?

Erronkei dagokienez, euskara guztion ondarea dela eta denok lagundu behar dugula gizarteratzen. Erabilera sustatu eta gatazka politikorako tresna izan ez zedila nahi nuen.

Argi neukan euskarak Udalean pisu handiagoa izan behar zuela. Horregatik, Euskara Zerbitzua arlo baten atal bat izatetik Udaleko arlo independente izatea lortu genuen. Honela, Euskara Zerbitzua zena gaur egun Euskara Arloa da, hizkuntza normalizaziorako baliabidea elkartuz.

Azken finean, euskara bizitzaren alor guztietara zabaldu nahi nuen. Eskola Kirola programa adibiderik politenetakoa da.

- Duela 20 urte, irundarren %29 euskaldun osoa zen; gaur egun, %40 inguru. Hala ere, gaztelania da, oraindik, irundarren %81en etxeko hizkuntza.

Hala ere, aurrera egin da. Izan ere, %17tik gora dira etxean euskara erabiltzen dutenak, orain urte batzuk pentsaezina zena. Euskadi osoan gertatzen dena gertatzen da hemen ere. Euskarari guneak ireki behar zaizkio, batez ere herritarrak erabiltzera animatu behar ditugu; hots, euskarak jendea limurtu behar du. Gure politika norabide horretatik abiatu dugu. Udalean euskararen erabilera normalizatzeko planaren helburu garrantzitsuenetako bat da zerbitzua bideratzea, hiritarrak aukeratu duen hizkuntzan eroso sentitzeko.

> “Euskararen aldeko politika ia beti erabateko adostasunez garatu dugu”

Kanpo planak ere, normalizazioarenak, aisialdian euskara bultzatu nahi du.

- Zer eragin izan du krisiak euskararen normalizazioan?

Murrizketak izan arren, ia programa guztiak mantendu ditugu. Hitzarmena sinatu zuten enpresei diru-laguntzak mantentzen zaizkie; ez dira, ordea, jada hitzamen berriak sinatzen.

- Hedabideena sektore estrategikotzat jotzen da udal plangintzetan; ez da, ordea, aurrerapausorik aipatzen ebaluazioan.

Hedabide handiek euskarazko edukiak eskaintzeko ahalegina egin behar dute. Kalitate-elementu bat dela iruditzen zait.

Prentsari zuzendutako Udalaren komunikazioetan euskara lehen baino gehiago erabiltzen dela uste dut.

- Zer esango zenioke hurrengo Euskara Ordezkariari?

Lantalde bikaina izango duela. Lanerako grinaz beteta etor dadila, erabilera sustatzea erronka handia delako. Bitartekoak finkatuta dauden arren, iraupen luzeko lasterketa da, etengabeko lana eskatzen duena.

Monica Alday:

“Ekologiaren eta iraunkortasunaren erakusleiho zabala da Bioterra”

Sektore berritzaile eta espezializatu baten azoka izan zen Bioterra bere hastapenean. Baina iraunkortasunarekiko ardurak eta produktu ekologikoen produkzioak eta kontsumoak gora egin dute azken hamabi urteetan. Bioterra azoka ere sektorearen erritmoan hazi da. Bilakaera hori lehen eskutik ezagutu du Mónica Alday azokako zuzendariak. Ekainaren 5ean, 6an eta 7an izango Bioterra.

- 2003an Bioterraren lehen edizioa antolatu zenutenean, produktu ekologikoen mundua ezezaguna zen.

Egia da sektorea nahiko murritza zela. Zirkulu espezializatu batzuetan egiten zen ekoizpen ekologikoa, eta gutxi batzuek besterik ez zuten kontsumitzen. Testuinguru horretan, ENEEK (Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua) erakundearekin harremanetan jarri zen Ficoba, ekoizpen ekologikoko produktuen azoka bat martxan jartzeko.

- Zein bilakaera izan dute sektoreak eta azokak?

Elkarrekin hazten joan dira. Sektorea bera, ekoizpen aldetik asko garatu da, eta kontsumoa ere asko hazi da. Gainera, etorkizunerako aurreikuspenak oso onak dira. Azoka erritmo berean handitu da. Duela hamabi urte pabilioi bakarra hartzen zuen; gaur egun, hirurak. 167 erakusketari dauzkagu.

- Bioterraren programan diozuenez, gaur egun inork ez du zalantzan jartzen ingurumenak duen garrantzia. Kontzientzia handitu da?

Gure eguneroko bizitzan, gai honen inguruko iraultza ezagutu dugu. Askoz ere informazio gehiago daukagu, askoz gehiago dakigu gure ekintzek ingurumenean izan dezaketen ondorioei buruz. Kontzientzia eta ardura handiagoak dira, eta praktikara eramaten ditugu, gainera. Hori bai, asko dago egiteko oraindik.

- Zenbateko garrantzia izan du Bioterrak eredu ekologiko horren zabaltzean?

Ez nuke jakingo neurri bat ematen, baina argi dago gure inguruan, behintzat, eragina izan duela. Bioterra sortu genuenean, bi ideia ziren guretzat oso garrantzitsuak: batetik, sektoreari tratamendu profesionala ematea, hasierako zirkulu espezializatu hori zabaltzea; bestetik, dibulgazio lana egitea, jendeari jakinaraztea zer den ekoizpen ekologikoa, edo zer diren produktu ekologikoak.

- Zer eskaintzen du Bioterrak, orokorrean?

Ekologiaren eta iraunkortasunaren erakusleiho zabala da. Eskaintza handia dauka erakusketarien aldetik. Haiek produktu eta zerbitzuak eskaintzen dizkiete bisitariei. Hala ere, ez da erakusleihoa bakarrik. Programa oparoa dauka, jendea azokara etortzen denean, stand-ak ikusteaz gain, zerbait ikas dezan nahi dugulako. Iraunkortasunarekin lotutako gai asko lantzen ditugu, edonork bere interesko zerbait aurkitu ahal izan dezan.

- Hizlarien artean bat nabarmendu duzue: Satish Kumar. Nor da?

Urtero saiatzen gara mundu mailan ekologiaren alorrean zer esana duten pertsonak ekartzen. Satish Kumar dibulgatzailea da, pentsalaria eta Resurgence & Ecologist aldizkariaren editorea.

Indiakoa da, eta 1962an hasitako Bakearen Aldeko Martxak egin zuen ezagun. Indiatik abiatuta, oinez eta dirurik gabe, arma nuklearrak zituzten lau hiriburu bisitatu zituen: Washington, Mosku, Londres eta Paris. Beti izan da bakearen eta ekologiaren defendatzaile. Ekainaren 6an, arratsaldeko 17:30ean egongo da Ficoban.

- Doakoa izango da aurten azoka. Jende gehiago erakarriko du?

Gero eta jende gehiagorengana iritsi nahi dugu. Horretarako, neurri eraginkorrenetariko bat doako sarrera eskaintzea da. 2013an ere egin genuen, hamargarren urteurrena ospatzeko, eta %50 igo zen bisitarien kopurua. Gure ideia da ahalik eta jende gehien erakartzea, erakusketarientzat ona delako, eta, batez ere, iraunkortasunaren mezua hedatzeko. Guk Euskal Herri osoan zehar zabaltzen dugu informazioa. Batez ere gipuzkoarrak izaten dira hurbiltzen direnak, eta %60 Irundik kanpokoak. Iparraldetik ere bisitari asko jasotzen dugu.

- F**icobaren azoka propioetako bat da Bioterra. Baina batzorde batek egiten du lan antolakuntzan.**

Ficoba azokaren antolatzailea da, arlo logistikoan batez ere. Dena den, Bioterrak Batzorde Antolatzaile bat dauka, eta bertan ordezkatuta daude erakusketariak eta bisitariak. Haiek laguntzen digute azokaren identitatea zehazten eta mantentzen. Sektoreko agenteak dira. ENEEK edo Iparraldeko Nekazaritza Elkartea daude, adibidez, horien artean.

BAKAILAOA DASTA EZAZU

R&J BACALAO · bacalaos SANTYMAR · la barajilla bacalaos · Eguillor Bacalaos

San Martzialak Caser Anakan

EGITARAUA

Ekainak 1 Kantineraren hautaketa
Ekainak 10 Errenteriako emakumeen dantza saioa
Ekainak 13 San Migel Konpainiaren entsegua
Ekainak 23 San Juan sua
Ekainak 25 Iruni buruzko bideo-proiekzioak
Ekainak 26 Kantinerari omenaldia
Ekainak 27 Anaka Konpainiaren entsegua
Ekainak 29 San Pedro eguneko arma-ikustatzea
Ekainak 30 Bazkari berezia eta Alardearen bideoen proiekzioa

Caser Anakan urtero sanmartzialak ospatzen dituzte. Ekainaren 1ean aurtengo kantinera hautatuko dute lankide, familia eta egoiliarren sei hautagaien artean. Hauetatik, gazteenak 72 urte ditu, eta 91, zaharrenak.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

Caser
RESIDENCIAL

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

Itzaletik taula gainera

"Tragedia bat da!", protesta egin du Shakespearek. "Bai, bai, nahi duzuna. Baina jendeari sufritu araztea kaka zaharra da", bota dio aita Marciano Veronako apaizak. *La verdadera historia de Romeo y Julieta*n, William Shakespeare hausnartzera bultzatzen dute, idazleak berak sortutako pertsonaiek. Antzezlana agertokira eraman aurretik, obrari azken ukituak ematen ari dira "Ezezagunok" elkarteko kideak. Beste edozein antzerki taldek egiten duen bezala. Haiena, baina, ez da ohiko antzerki taldea. Adimen urritasuna dute Ezezagunok-eko aktoreek.

Irungo Lapitze auzoko eskola zaharreko ikasgela txiki bat da Ezezagunok elkartearen entsegu aretoa. Saioa amaituta, zirkulu zabala osatu dute taldekideek, galderei erantzuteko prest. 2007aren amaieran kokatu dute taldearen sorrera. Luisma Moreno eta Miren Etxeberria *Gureak* enpresa taldean ibiliak ziren. Ana Pérezekin elkartu ziren, laguntza berezia behar duten pertsonei zuzendutako antzerki tailer bat antolatzeko. Arte eszenikoetan esperientzia handia zuen ordurako Pérezek. 1986an Legaleón taldearen sorreran parte hartu zuen. Gaur egun, Ezezagunok elkarteko zuzendaritza artistikoa osatzen du hirukoteak. "2007aren amaieran esperimentatu egin genuen, ikusteko ea gai ginen obra txiki bat prestatzeko. Ondo atera zen, eta aurrera egitea erabaki genuen", azaldu du Luisma Morenok. Taldearen izenaren zergatia ere argitu du: "Historian zehar izen asko jarri izan dizkiote kolektibo honi, ia denak mespretxuzkoak. Horrek esan nahi du jende askok ez dituela benetan pertsona hauek ezagutzen".

2008aren hasieran eratu zuten antzerki elkartea, bi helburu argirekin. Ana Pérezek azaldu ditu: "bata, obra txikiak antzeztea espazio publikoetan, edozein antzerki taldek bezala; bestea, eguneroko bizitzan baliagarri izan daitezkeen arloak lantzea, hala nola harremanak, memoria, emozioak, keinuak edo espazioaren kontrola". Funtzio soziala ere betetzen du Ezezagunok-ek. Aisialdia modu aberasgarrian betetzeko aukera ematen die parte-hartzaileei. Asko ikasi dute zazpi urteko ibilbidean. Bilakaera handia izan dela azaldu du Luisma Morenok: "Hasieran ez genuen memoria lantzen, eta antzezlanak oso estatikoak ziren". Testuetan nabaritu du aldaketa Mari Ángeles Fernández aktoreak: "Hasieran, testuak errazak eta laburrak ziren. Orain zailagoak dira". Obra

bat prestatzen hasten direnean, denbora asko ematen dute testua irakurtzen, eta pertsonaiak eta egoerak barneratzen. Etxeko lanak ere izaten dituzte, gainera. "Egunero entseatzen dut etxean. Amak laguntzen dit", onartu du Mikel Fizek.

Romeo eta Julietaren istorio moldatua

La verdadera historia de Romeo y Julieta obra antzezten ari dira aurten. William Shakespeare dramagile ingelesaren lanaren moldaketa da. Komedia moduan, Shakespearren lana zalantzan jartzen dute. "Galdetzen diogu ea zergatik egiten dituen horren obra tristeak, eta ilunak", azaldu du Luisma Moreno zuzendariak. Aktore guztiek aho batez erantzun dute publikoarengan zer eragin nahi duten galdetzerakoan: "Barrea". Barrea eta txaloak gustatzen zaizkiola onartu du Idurre Burgañak. "Jendeak goza dezan egiten dugu, ez negar egiteko", azpimarratu du Jon Caverok. Orain arte, makina bat algara eragin ditu Ezezagunok-ek. Ezustekoren bat ere bai. "Jende askok aurreiritziak dauzka oraindik, eta ez du uste gurea bezalako talde bat halako obrak antzezteko gai denik", argitu du Luisma Morenok.

Urte erdian, bost aldiz antzeztu dute jada obra. Seigarrena ekainaren 6an izango da, Donostiako Antzoki Zaharrean (20:00). Badituzte beste hiruzpalau emanaldi lotuta. "Bi urteko lanaren ondoren, ahalik eta toki gehienetan antzeztu nahi dugu obra", aitortu du Luisma Morenok. Horretarako, antzokietara eta departamentu sozialetara deitu eta proiektua azaldu behar izaten dute. Behin hitzordua finkatuta, azpiegitura handia mugitzen dute: hogei pertsonako taldea, materiala, jantziak... Hori dela eta, erakundeei deia luzatu nahi izan die Ana Pérezek: "Gurearen ezaugarriak dituen beste antzerki talderik ez dago Euskal Herria osoan. Babes handiagoa eskatzen dugu". Gurasoen laguntza nekaezina, behintzat, badute. Elkarrizketa bukatuta, irteeran denek dute aita edo ama zain. Entseguaren eta obraren inguruko galderak egin dituzte. "Noizbait gurasoekin antzeztuko dugu, primeran dakite eta", esan du, txantxetan, Luisma Morenok. Baina ez zaio arrazoirik falta. Erabatekoa da Ezezagunok taldeko gurasoen inplikazioa.

Eskaintza zabala Bidasoa Institutuan

Laster ikasle, langabetu eta langile askok 2015/2016 ikasturtean egingo dituzten ikasketak pentsatu eta erabakiko dituzte. Irunen, Bidasoa Institutuak erdi- eta goi-mailako eskaintza zabala du. Aurrematrikulazioa egiteko epea ekainaren 5ean bukatuko da eta matrikulazioa ekainaren 16tik uztailaren 6ra izango da. Berrikuntza eta profesionaltasuna dira Bidasoa Institutuko ezaugarri garrantzitsuenetarikoak.

Bidasoa Institutuaren eskaintza

Erdi-mailako zikloak
- Altzarien instalazio eta hornikuntza
- Telekomunikazio instalazioak
- Instalazio elektriko eta automatikoak
- Mekanizazioa

Goi-mailako zikloak
- Mantentze lan elektronikoa
- Diseinu eta altzarigintza
- Obra zibileko proiektuak
- Fabrikazio Mekanikoko diseinua
- Sistema elektroteknikoak eta automatizatuak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Telekomunikazio eta informatika sistemak

Profil guztietako jendeak izena emateko aukera du. Adibidez, langileek eskaintza berezia dute aukeran, hiru ziklotan, arratsaldeko txandan: fabrikazio mekanikoa; elektrizitatea; eta elektronika, telekomunikazio eta informatika sistemak.

Lanbide Heziketa Duala

Halaber, nabarmentzekoa da Lanbide Heziketa Duala. Aurtengoa laugarren deialdia izango da. Sistema honi esker ikasleak ikasi eta, aldi berean, lan egiten du. Lehenengo urtean ikastetxean egiten dituzte ikasketak, eta bigarren kurtsoan ikastetxean jarraitzen dute, baita enpresa batean lan egiten ere.

Kontuan eduki behar da ez direla praktikak, ikasleei kontratua egiten baitzaie. Bidasoa Institutuko Fernando Delgado irakasleari eskaintza oso interesgarria iruditzen zaio “enpresek abantailak dituzte, adibidez, ez dute gizarte segurantza ordaindu behar; eta ikasleek, soldata jasotzeaz gain, enpresan bertan egiten dute institutuan ikasitakoa”.

Bestalde, lana aurkitzeko aukera gehiago izateko, lan poltsa handia dute ikasketak bukatzen dituzten ikasleentzat. Dena den, gaur egun, egoera dela eta, norberaren ekimena oso garrantzizkoa da lanpostu bat bilatzeko orduan. Bidasoa Institutuak, egoerari egokitzeko asmoz, “URRATS BAT” proiektua abian jarri du. “Enpresa sortzea da jomuga. 2001ean hasi ginen, eta harrez geroztik hogei enpresa baino gehiago sortu dira” azaldu du Fernando Delgadok. “Gainera, gehienak martxan daude. Ez dago dudarik berri on bat dela”, dio irakasleak.

Proiektu hau zikloa bukatzen duten ikasleei zuzenduta dago. Tramite guztiak egiten laguntzen zaie, diru-laguntzak lortzen, eta abar. Azken finean, enpresa sortzearen prozesurako laguntza bat baita.

Nazioarteko proiektuak

Garbi dago praktikak egitea garrantzitsua dela institutuan ikasitakoa aplikatzeko eta lana aurkitzen erraztasunak izateko. Bestalde, hizkuntzak menperatzea eta beste herrialdetan nola egiten duten lan ezagutzea esperientzia oso positiboa izaten da. Horregatik, Bidasoa Institutuak enpresan egiten den formakuntza atzerrian burutzeko aukera ematen du. Urtero 11-12 ikaslek Europako hainbat herrialdetan lanean dihardute.

Nesken eskubaloia sustatzen ari da Bidasoa

Bidasoa eskubaloi taldeko bi neska deitu dituzte, lehen aldiz, Gipuzkoako selekzioarekin aritzeko. Leire Iguiñiz eta Juncal Díez infantil mailako jokalariak dira aitzindariak. Berri pozgarria izan da neskentzat, baina baita C. D. Bidasoa elkartearentzat ere. Duela hiru urte jarri zuen martxan klubak infantil mailako nesken lehen taldea. Egindako ahaleginaren eta lanaren fruituak jasotzen hasi dira.

Duela lau urte klubaren agintea hartu zuenean, gabezia handi bat ikusi zuen zuzendaritza taldeak. Nesken eskubaloi talderik ez zuen Bidasoak. “Eskubaloian aritu nahi zuten neskak bazeuden Irunen, baina estruktura falta zen. Neskek Ereintzara edo Bera Berara joan behar izaten zuten jokatzera”, gogoratu du Aritz Sodupe harrobiaren arduradunak. Infantilen talde bat sortu zuen Bidasoak, hasteko. Orain, kadeteak ere badaude. Pixkanaka handitzen ari da familia, eta hurrengo urterako lau talde espero dituzte. Neskak erakartzeko lana egin dutela onartu du Sodupek: “Eskoletan eskubaloi saioak egiten ditugu soinketa orduetan, zortzi urteko haurrekin hasita. Hor izaten da lehen kontaktua, edo Eskola Kirolan, bestela”.

Erreferenterik ez zaie falta neskei. Donostiako Bera Bera emakumeen eskubaloi taldea goi mailan dabil, tituluak eskuratzeko lehian. Dena den, Bidasoa-Irun taldeak berak ere erakarri izan ditu neskak. “Lehen taldearen partidak ikusten hasi nintzen joan den urtean. Bartzelonaren aurkakoa izan zen lehena. Futbola ez zitzaidan gehiegi interesatzen, baina eskubaloia asko gustatu zitzaidan. Oso kirol polita eta dinamikoa da”, azaldu du Maialen Unanuek. Kadete mailako taldean hasi da aurten, lehenago sekula eskubaloian ibili izan ez den arren: “Zerotik hasi nintzen, baina taldekideek asko lagundu didate. Jendea ezagutu dut, eta gehienekin oso ondo moldatzen naiz. Gainera, partidetara joaterakoan, lekuak bisitatzen ditugu”.

Itsasne Cañas da Unanueren entrenatzailea. Bera ere kadete mailan ibili zen eskubaloian, Hondarribian. “Gero Leonen egin nituen ikasketak. Han eskubaloiaren inguruko kultura handia dago, Irunen bezala”, adierazi du Cañasek. Denboraldi honetan hasi da taldea entrenatzen, eta gustura dago neskek izan duten bilakaerarekin: “Batzuk aurten hasi dira, eta lan handiagoa egin behar izan dugu haiekin. Asko hobetu dute urte osoan zehar. Emaitzei dagokienez, hasieran ez ginen ondo hasi, baina hobeto amaituko dugu denboraldia”. Kadeteen taldea da, momentuz, Bidasoako nesken gailurra. Hala ere, Aritz Sodupek ez du azken helburua ezkutatu: “Senior mailako taldea edukitzera heldu nahi genuke”.

Bidasoatik Gipuzkoako selekziora

Artalekun hazitako neska batzuk nabarmentzen hasi dira dagoeneko. Infantil mailako selekzioan daude Leire Iguiñiz atezaina eta Juncal Díez zentrala. Ilusioz hartu zuten deia. “Gogoratzen dut Artalekuko kantxan esan zigutela, eta ateratzerakoan korridoreetatik saltoka joan ginela”, adierazi du Díezek. Selekzioko neskak ezagutzen zituzten, haien aurka jokatutakoak zirelako. Hala ere, Iguiñizek aipatu du nabari zela elkarrekin entrenatzen denbora gehiago zeramatela. Orain, astean behin aritzen dira, normalean, selekzioarekin. Juncal Díezek baieztatu du asko ikasten ari direla: “Jokaldi zailagoak, landuagoak egiten ditugu. Baina ondo azaltzen dizkigute, eta azkenean ateratzen zaizkigu”. Bidea ireki dute Iguiñizek eta Díazek. Aurki ez dira bakarrak izango.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

Kolpe latza jaso du Bidasoa-Irunek

Finalaurrekoan gelditu dira horiak, Asobal Ligara igotzeko lehiatik kanpo

Amesgaizto bilakatu zen Santanderrera bidaia Bidasoa-Irun taldearentzat eta zale irundarrentzat. Baikor eta ilusioz beteta iritsi ziren La Albericia pabilioira. Baina oso gutxi iraun zuen itxaropenak. Asobal Ligara igotzeko faseko finalerdia galdu zuen Bidasoak, eta goi mailara iristeko lehiatik kanpo gelditu zen, uste baino lehenago. Valladolidek menderatu zuen, irundarren neurketa kaskarraren ondoren (31-20). Biharamunean, hirugarren eta laugarren postuetarako lehia irabazi zuen Bidasoak, Navaren aurka (20-27). Garaipenak, ordea, ez zuen inor kontsolatu. Ohorezko B Mailan ariko da talde irundarra hurrengo denboraldian. Santanderko Sinfinek lortu zuen Asobal Ligara igotzea, finalean Valladolid penaltietan gainditu ondoren

Bidasoa-Irunek ez du denboraldiko helburua bete. Udan behintzat, ozen eta argi esan zuen José Ángel Sodupe presidenteak Asobal Ligara bueltatzea izango zela taldearen helmuga. Liga irabazita zuzenean igotzea ere aipatu zuten klubean. Lehiaketa hasi bezain laster, berriz, agerian gelditu zen oso altu jarri zuela listoia Artalekuko elkarteak. Berandu eratu zuten taldea. Jokalari asko ziren berriak, batzuk atzerritarrak eta sekula Ohorezko B Mailan aritu gabeak. Ondorioz, denbora asko behar izan zuen taldeak martxa egokia hartzeko. Lehen itzuliko gurutze-bidea amaituta, bigarrenean hobera egin zuen Bidasoak. Hala ere, joko irregularra eta lesioak oztopo izan ziren irundarren goranzko bidean. Azkenean, behintzat, igoera faserako txartela lortu zuten bidasoarrek, ligaren azken txanpan maila ona eman ondoren. Sasoian iritsi ziren play off-era, eta itxaropena piztu zuten klubean eta zaleen artean. Santanderreko Go Fit Sinfín taldeak antolatu zuen igoera fasea, Teka historikoaren etxe izandako La Albericia pabilioian. Maiatzaren 30-31ko asteburuan izan zen.

> "Valladolidek gure jokalariak mugiarazi eta hutsune handiak sortu ditu"
>
> **Fernando Bolea, entrenatzailea**

> "Irabazten ez duzunean ez duzu galtzen, ikasi egiten duzu"
>
> **Asier Zubiria, kapitaina**

Sinfinek erraz gainditu zuen Nava lehen finalerdian, igande eguerdiko hitzordu nagusirako txartela eskuratzeko (32-22). Bigarren finalaurrekoan, lehia estua espero zitekeen Atlético Valladoliden eta Bidasoa-Irunen artean. Neurketak, ordea, ez zituen aurreikuspenak bete. Talde horiaren hondamendiak ezustean harrapatu zituen zaleak. Itxura txarra eman zuen Bidasoak hasieratik. Denboraldian zehar egindako akatsak errepikatu zituen. Lehen zatian nola edo hala aurre egin zion Valladolid sendo bati. Bigarrenean, aldiz, jipoia jaso zuen. Talde ahula izan zen defentsan, eta baldarra erasoan. "Valladolidek ondo jokatu du, gure jokalariak mugiarazi eta hutsune handiak sortu ditu", azaldu zuen Fernando Bolea entrenatzaileak. Dena den, talde irundarrak partidu txarra ere egin zuela onartu zuen: "Ez dakit presioak edo markagailuan aurretik ez jartzeak eragina izan duten. Baina ez dugu maila eman". Hamabost minutu luze falta zirela, norgehiagoka erabakita zegoen. Bidasoak amore eman zuen, etsita. "Badakit gaizki dagoela, kirolean ezin daitekeela egin. Baina neurri batean, ulertzen dut", adierazi zuen Fernando Boleak.

Altxatu eta ikasi

Burumakur utzi zuten kantxa jokalari bidasoarrek, zaleei emandako babesa eskertu ondoren. Negar malkoak ere isuri zituzten. Denboraldi osoan zehar sufritutakoa gogoratu zuen Asier Zubiria kapitainak: "Honaino iristea kosta zaigunaren ondoren, partida bakarrean denboraldi osoko lana galtzeak pena handia ematen du". Irregulartasuna izan da Bidasoaren arazoa sasoi osoan zehar. Eta hitzordurik garrantzitsuenean, taldearen bertsiorik okerrena gelditu zen agerian. "Denboraldiaren isla izan daiteke", onartu zuen Zubiriak. Finalak ihes egin zion Bidasoari, eta lur jota gelditu ziren jokalari asko; gazteenak, batez ere. Garaipenak ospatzeko denbora izango dutela gogoratu zuen Asier Zubiriak: "Nik horrelako batzuk pasa izan ditut, eta burua altxa beharra dago. Irabazten ez duzunean, ez duzu galtzen, ikasi egiten duzu". Hausnartzeko eta ondorioak ateratzeko garaia izango da orain Artaleku kiroldegian. Nolanahi ere, beste bi urterako kontratua sinatu du Fernando Boleak. Gainera, entrenatzaileak adierazi du hurrengo urterako taldea eratzerakoan iraultza handirik ez duela egin nahi. Hortaz, proiektuari jarraipena emango dio Bidasoak.

“Gizartearen termometroa gara”

Lorena Pidal

3.300 dei inguru jasotzen dituzte urtean Gipuzkoako Itxaropen Telefonoan (900 840 845). Hamar-hamabost, egunean. Kezkak askatzeko aukera ematen dio telefonoaren beste aldekoari. Eguneroko lan horrek aitortza jaso du azken urteotan. Onura Publikoko Elkarte izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak 2007an, Gipuzkoako Boluntariotza Saria jaso zuen 2011n, eta Donostiako Hiritar Merezimenduaren Domina, 2014an. Irundar bat ari da zuzendari lanean: Lorena Pidal psikologoa.

- Zein elkarte edo erakunde dago eskaintzen duen zerbitzuaren atzean?

Gipuzkoako Itxaropen Telefonoa irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, 1987an sortua. Estatuan, lehen Itxaropen Telefonoa Madrilen sortu zen, 1971n. Gipuzkoakoa ekimen pribatua izan zen. Gaur egun, Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta hainbat Udalen diru-laguntzak jasotzen ditu Gipuzkoako Itxaropen Telefonoak. Doako zerbitzua eskaintzen duen bakarra da, estatu osoan.

- Boluntarioen ekarpenari esker egiten duzue lan?

Bai. Berrogei pertsona inguruko taldea dugu. Koordinatzailea eta zuzendaria gara soldata jasotzen dugun bakarrak, eguneroko kudeaketa lana egin behar dugulako. Gainerakoak boluntarioak dira, baita zuzendaritza batzordekoak ere.

- Nola banatzen duzue lana?

Hiru entzute txanda egiten ditugu egunean. Boluntario bakoitzak txanda bakarra egiten du astean. Horrela, entzutearen kalitatea maximoa dela bermatzen dugu. Minduta edo hunkituta irteten den boluntarioak aste osoa izango du atseden hartzeko. Soldatapekoek zerbitzua zuzentzen dugu, formazioa eskaintzen dugu eta jarraibideak zehazten ditugu, besteak beste.

- Baldintzarik bete behar al du boluntarioak?

Printzipioz, ez. Talde aberatsa dugu, lanbide eta eremu profesional ezberdinetako jendea dugulako. Hori bai, prozesu oso bat gainditu behar izaten dute. Hautatze elkarrizketak egiten ditugu lehenengo. Gero, formazio ikastaroa egiten dute boluntarioek, ezinbestekoa den prestakuntza jasotzeko. Hiru hilabeteko formazioa izaten da.

- Zer lantzen duzue formazioan?

Arlo teorikoa eta praktikoa izaten dira. Teorikoan, entzute aktiboari buruzko kontzeptuak eta telefono bidezko komunikaziorako teknikak lantzen ditugu. Itxaropen telefonoaren balioak oso argi uzten ditugu: kofidentzialtasuna eta anonimotasuna. Entzuleek ez dute inoiz beren burua identifikatzen, eta deitzen duenari ez diote inolako daturik eskatzen. Arlo praktikoan, simulakro ariketak egiten ditugu. Nabarmendu nahi nuke hilero eskaintzen ditugula boluntarioei zuzendutako formazio saioak.

- Entzuterakoan ez duzue inolako iritzirik edo aholkurik ematen?

Inoiz ez. Gu ez gara inor horretarako. Hogei eta berrogei minutu arteko elkarrizketak izaten dira. Denbora horretan, ez duzu pertsonaren ikuspegi zabalik. Kontatu dizun egoeraren zirriborroa besterik ez duzu. Aholku errazak kalean barra-barra erabiltzen dira. Guk ez dugu hori egiten. Galderen eta bestelako tekniken bidez, deitzen duenak konponbideak bere baitan bila ditzan saiatzen gara.

- Zein dira aurkitzen dituzuen egoera edo arazo ohikoenak?

Ordenean aipatuta, lehenengoa, bakardadea. Bakardade mingarria. Izan daiteke adineko pertsona bat, egoitza batean dagoena, edo etxean bakarrik dagoena. Edo izan daiteke gazte bat, familia, lana eta lagun taldea dituena; baina bakarrik sentitzen dena, inguruak bizkarra eman diolako. Gero gatazka sentimentalak daude, oso ohikoak. Bikotekideen artean, edo guraso eta seme-alaben artean. Antsietateak eta depresioak ere detektatzen ditugu. Gizartearen termometroa garela esan daiteke.

- Zein izaten da deitzen duten pertsonen ohiko profila?

%70 emakumezkoak izaten dira, gutxi gora behera. Hala ere, gizonezkoak gero eta gehiago dira, duela hamar urte baino askoz gehiago. Adinari dagokionez, behera egin du bataz bestekoak. Gaur egun, 45-55 adin tartea oso presente dago.

- Itxaropen Telefonoaren berri emateko egin duzuen lana al dago aldaketa horren atzean?

Hein handi batean, bai. Gaur egun lehen mailako arreta zerbitzuek, gizarte laguntzaileek edo emakumeen elkarteek badute Itxaropen Telefonoaren berri. Interneten eta sare sozialetan dugun presentzia ere azpimarratzekoa da. Bestalde, hitzaldi zikloa antolatzen dugu urtero, eta hizlari ezagunak gonbidatzen ditugu. Azken urteotan egin dugun lan handiaren ondorioak antzematen ari gara orain.

- Telefonoaz gain, aurrez aurreko atentzioa ere eskaintzen duzue egoitzan. Zein kasutan?

Ikusten dugunean deitzen duen pertsonak laguntza psikologikoa behar duela.

Zerbitzu profesionalena da, psikologoek bakarrik parte hartzen dutelako. Diagnosirik eta tratamendurik ez dugu egiten, eta sei saio egiten ditugu gehienez ere. Behar izanez gero, beste profesional batzuengana bideratzen ditugu ondoren.

DOCTOR HOUSE
Etxekologo

MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXETAN NAHIZ DENDETAN

- Arotzeria
- Margolanak
- Zaharberritze lanak
- Lorategiak
- Iturgintza
- Sarrailak
- Elektrizitatea
- Instalazio zein muntaketak
- Garbiketa bereziak eta abar

DAVID:
655 70 98 93

El Pilar HH - Sara O´Connel, 5 urte



Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK

Asesoría Arrigain

Zerbitzuak:

Kudeaketa administratiboak, laboralak,
kontularitzakoak eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...

Errenta aitorpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

San Ramon kalea, 3 atzea, sarbidea Euskal Herria hiribidetik – Irun Telf: 943636080 - 676756975 www.arrigain.es asesoria@arrigain.es

San Vicente Paul DBH2

INTERNETEN EBOLUZIO ZORABIATZEKOA

Maiztxo irakurtzen didazuenek (Jainkoak benedika zaitzatela!) badakizue formazioarena biziki interesatzen zaidan gaia dela. Izan ere, Internet bidezko komunikazioa dela, online marketina dela, ene aldiroko lanen artean nagusietariko bat da formaziorako ikastaro eta tailerrak ematea.

Honi guzti honi ekin nionean pentsatzen nuen, koitadu honek, material didaktikoa prestatzen nuen denbora (ordaindu ohi ez dizutena) inbertsio moduko bat zela, behin eta berriro erabiliko nuelakoan.

Gai teknologikoei buruzko online ikastarorik egin baldin baduzu, behintzat ez baldin baduzu sekulako dirutza ordaindu (familiaren urteko oporraldia edo sofa zaharraren berritzea bertan behera luzaro uzten duten horietakoa), honez gero konturatu zara edukia zaharkitua egoten dela eta pantailakada batzuek aspaldiko garaiak salatzen dituztela.

Ezin diskutitzeko axioma batek dio Facebookek beti berrituko duela funtsezko zerbait, noiz eta ikastaro bat hasi behar dugun egunean bertan. Ez inoiz lehentxeago edo geroxeago, orduantxe baizik.

Tira, egia da askotan aldaketa estetiko hutsak direla. Online plataformak izaki bizidunak dira; alegia, sortu, hazi, ugaldu eta hil egiten dira. Hori bai, ziztu bizian. Egunean egunekoa ezagutzeak ahaleginak eta bi eskatzen ditu, zer esanik ez eboluzio hori dokumentatzeak.

Eta hona hemen koska: zerbaiti buruz irakatsi ahal dugu ez baldin bagara etengabe erabiltzen ari? Internetekin zerikusia badu, ez. Oso sarritan darabilenak baizik ezin du transmititu teknika eta estrategia eraginkorrenen ideia gaurkotu eta baliagarririk. Horrela ez bada, mundu guztiak dakien zerbait azaltzen arituko da: zaharrak berri.

Laburbilduz, ez gehiegi eskatu 40 €ko online ikastaroen truke. Halako prezioa errentagarria izango bada, materialak behin eta berriro berrerabili behar dira, eta beraz ziurrenik desfasatuak daude. Irakasten dituzten gaiak ogibide ez dituzten formatzaileekin ere ez sobera fidatu, ez dutelako lehen eskutik ezagutzen azaltzen duten balioa, eta saltzen laguntzen duen ere ez dakitelako.

Eta, batez ere, ez ahaztu irakurri berri duzuna zaharra dela. Hau Internet da, eta biharkoa da oraina

Pablo Moratinos
Marketing Online-ko aholkularia
3yMedia Comunicación Digital

Herri Bazkaria, hobekuntzaren bila

Larretxipi kale osoa hartu du ilarak. Urdanibia plazaraino iritsi da. Arrazoia: ekainaren 27ko Herri Bazkarirako txartelen salmenta. Agerikoa da Betti Gotti Euskara Kultur Elkarteak Udalaren babesarekin antolatzen duen ekimenaren arrakasta. Duela zazpi urte egin zuten lehen edizioa, Uranzu pilotalekuan. Gaur egun, 1.500 lagun baino gehiago biltzen dituzte Ficoban. Hiriko gazte askorentzat, behintzat, jaietako egitarauan kolore biziz markatutako hitzordua da.

Betti Gotti Euskara Kultur Elkartearen Ainhoa Ruano, Nerea Garcia eta Iñaki Goikoetxea. Beheko argazkietan, 2014ko Herri Bazkaria.

Urtero handitzen eta berritzen jarraitzen du Betti Gottiren Herri Bazkariak. Aurten beste urrats bat emango du. Ficobako hiru pabilioiak hartuko ditu. Aforoa berbera izango da: 1.500-1.600 lagun, baina espazio gehiago izango da. “Herri Bazkariaren egunean jende asko pilatzen da. Orain arte ez da arazo larririk egon. Baina pentsatu genuen hobe izango zela leku gehiago edukitzea”, argitu du Iñaki Goikoetxeak. Lehen bi pabilioietan bazkarirako mahaiak jarriko dituzte. Joan den urtean adinaren arabera sailkatu zuten jendea: 18-23 urte artekoak alde batetik, eta 24tik gorakoak bestetik. Banaketa mantenduko dutela azaldu du Ainhoa Ruanok: “Helduagoa den jendeak nahiago izaten du giro lasaiago batean egon. Joan den urtean oso ondo atera zen, eta aurten ideia berdina mantendu dugu”. Hirugarren pabilioian taberna eta eszenatokia kokatuko dituzte. Haitzama taldeak eta DJ batek jarriko dute musika bazkariaren ondoren.

Erdigunetik Ficobarako bidea, eta bueltakoa, kalejiran egingo dituzte. Txaranga eta batukada izango dira goizean, eta Elektropatxaranga taldea arratsaldean. Olinpiadei dagokienez, berriz, aldaketa izango da. Bi jardunalditan egingo dituzte aurten Olinpiadak. Ekainaren 20an sailkatze probak izango dira, arratsaldeko bostetatik aurrera. Eta ekainaren 27an finala, ordutegia atzeratuta. Goizeko hamaiketan hasiko da jardunaldia. “Orain arte koadrila batzuk ez omen ziren animatzen goizean goiz esnatu beharra zegoelako. Aurten ez dute aitzakiarik”, aipatu du Nerea Garciak. Aurreko asteburua girotzeko modua ere izango da, ekainaren 20ko jardunaldiaren ondoren triki-poteoa egingo baitute. Dezente lehenago ere ematen du lana Herri Bazkariak. Maiatzaren 29an eta 30ean hasi dira sarrerak saltzen. Ekainaren 5ean (18:30-20:30) eta 6an (11:30-13:00) banatuko dituzte azkenak. 17 €ren truke banatuko dituzte sarrerak. Euro banak elkarteak antolatzen dituen euskarazko udalekuak aurrera ateratzeko bideratuko dute.

Iñaki Goikoetxeak onartu du salmenta kudeatzea zaila dela: “Hala ere, azken urteotan abilezia hartu dugu, eta beldurrik gabe egiten dugu: Hori bai, pazientzia pixka bat eskatzen dugu”. Betti Gottiko boluntarioen eta Herri Bazkariaren inguruan laguntzera hurbiltzen direnen lana azpimarratu nahi izan du Goikoetxeak: “Betti Gottin hamar-hamabi pertsona gabiltza normalean, baina Herri Bazkariaren egunean hogeita hamar ere elkartzen gara, gure lagunen edo Betti Gottin ibilitakoen babesari esker”. Guztien artean, “altxorra” gordetzeko lana egiten dutela baieztatu du Betti Gottiko kideak. “Egun berezia da, koadrilak biltzen direlako. Normalean, giro ezberdinetan aritzen den jendea elkartzen da Herri Bazkarian”, gogoratu du Nerea Garciak. Irundarrak ekimen baten inguruan biltzeko ahalmena da Herri Bazkariaren baliorik handiena.

Logotipoen lehiaketa antolatu du Betti Gottik

Urteroko kamiseten lehiaketaz gain, logotipoarena ere antolatu du aurten Betti Gottik. Herri Bazkariak hurrengo urteetan erabiliko duen ikurra aukeratuko dute. “Herri Bazkariaren formatua urtero errepikatzen da, eta egia da jendea gustura dagoela. Baina saiatzen gara berritasun txikiak bilatzen, beste buelta bat emateko eta jendea erakartzen jarraitzeko”, aipatu du Iñaki Goikoetxeak. Ekainaren 17ra arte herribazkaria@bettigotti.com helbide elektronikora bidal daitezke logotipoak. 100 euroko saria emango diote logotipo onenaren egileari.

Sorospen eta Lehen Laguntzarako ikastaroa Hondarribian

Noiz? Ekainaren 3tik 23ra.

Ordua? 19:00etatik 21:00etara, astelehenetik ostiralera.

Izena emateko? 943 46 46 22.

Txiribueltak Aisialdiko Begirale bat behar du

Baldintzak? Euskalduna izatea, Aisialdiko Begirale titulua edukitzea, eskaladaren inguruko oinarrizko ezagupenak, maila nahikoa haurrei urtean zehar kurtso bat emateko, eta arduratsua izatea.

Izena emateko?
- txiribuelta@hotmail.org
- 665 001 193 (Oihana)

MUSIKIRUN 2015. Badatoz emanaldiak!!!

KARMACADABRA (Fusioa - Cartagena) + TU VES OVNIS (Pop Rocka - Valentzia) + IVAN VERA (Pop Balada kantautorea - Tarragona)

Noiz? Ekainak 5

Non? Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoan

Prezioa? Dohainik

irun gazte informazioa
www.irun.org/igazte

- Aurrez aurre: Foruen karrikako 2-behea
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

BARNETEGIAK 2015

- HABEren eskaintza (publikoak eta pribatuak)

- AEKren eskaintza - (Euskalduntze barnetegiak, familientzako barnetegiak, ibiltariak...)

- Euskara ikasi! (barnetegiak, autoikaskuntza, dirulaguntzak...)

- HABE-Ikasbil Bilatzailean Euskadiko, Nafarroako, Iparraldeko eta Euskal Etxeetako euskaltegien zerrendak aurkituko dituzu. Zerrenda horretan euskaltegi publiko eta pribatuak sartzen dira, baita autoikaskuntza zentro homologatuak ere.

XV. ENPLEGU ASTEA

Irungo Igaztek ekainaren 11an Ficoban egingo den Enplegu Astean egongo da. Izen-ematea www.elespazio.com web orriaren bidez egin behar da. Eskaintzen diren postuak Interneten, ekainaren 1ean, 10:00etan argitaratuko dira, eta ekainaren 3ko 19:00etara arte egongo dira ikusgai. Eskaintzak argitalpenetik kenduko dira enpresak eskatutako hautagai kupoia betetzen denean.

Ekainak 5

Zer? “Kontsumoari buruzko oinarrizko ezagupenak” hitzaldia Kontsumobideko teknikari baten eskutik, Artia auzo elkarteak eta Udaleko Kontsumo Bulegoak antolatuta.

Non? Artia-Azken Portu AE. Pío Baroja, 30 - behea

Ordua? 18:30ean

Prezioa? Doako sarrera

Ekainak 5

Zer? Solasaldietarako gunea frantsesez Mónica Zafraren eskutik.

Non? Ikust-Alaia Udal liburutegian.

Ordua? 16:00etan

Prezioa? Doako sarrera

Ekainak 6

Zer? "Girabira-k" eramango ditu musika, tailerrak eta herri bazkariak hiriko parkeetara. Lehendabiziko Girabira-n Parkourra izango da gai nagusia.

Non? Sarjia Parkean

Ordua? 16:00etatik 21:00etara.

Prezioa? Doako sarrera

Ekainak 13 -l 4

Zer? Bidashop Brass Band Jaialdian leku desberdinetako bandek Irunen joko dute.

Larunbatean
11:00: Aurkezpena Behobian: eta zozketa baten bitartez bakoitzak jarraitu beharko duen ibilbidea aukeratuko da.
12:00-14:00 eta 18:00-22:00: Irungo auzoetan joko dute.

Igandean:
11:00: Auzoetatik Zabaltza plazara hurbilduko dira.
12:00: Txaranga bakoitzak hainbat minutu izango ditu epaimahaia erakartzeko.
14:30: Epaimahaiak bere epaia igorriko du. Irabazlearentzako sariaren emanaldia egingo da.

IRUN HIRIA ARGAZKI LEHIAKETA HERRIKOIA

Nahi duen afizionatu orok parte ahal izango du. Bi gai izango dira aukeran: 1.- Irun. 2.- Librea. Zuri-beltzean edo koloretan egindako argazkiak, muntatu gabe; edozein teknika onartuko da.

Aurkezteko epea: Ekainaren 15eko arratsaldeko 20:00ak arte Gazte Informazio Bulegoan (Irungo Foruen Karrika, 2) eta AFI-IAEko aretoan (Irungo Izaga Kalea, 7).

Epaimahaia: Bozketa mistoa izango da, eta aurkeztutako lanak erakusketaren inauguraziora etortzen den jendeak zein epaimahai tekniko batek epaituko ditu, ekainaren 17an 19:30ean.

Erakusketa: Ekainaren 17tik 25era arte AFI-IAEko aretoan, 19:00etik 21:00era.

Sariak: Trofeoak emango zaizkie gai bakoitzeko lehen hiru sailkatuei, bai eta argazki materialez osatutako opariak ere. Partaideek ezingo dute sari bat baino gehiago jaso.

LOS ZIGARROS + NTVG + FITO Y LOS FITIPALDIS

Zer? Los Zigarros, NTVG eta Fito y los Fitipaldisen kontzertua.

Noiz? Ekainak 13

Non? Ficoban

Ordua? 20:30etik aurrera

Salmenta? Ticket master webgunean; Telefonoz: 902 150 025; Zuzenean: FNAC, Carrefour eta Halcón Viajes bulegoetan.

Prezioa? Aurretiko sarrera: 28 € / Leihatilean kon-tzertuaren egun berean: 32 euro.

EKAR teleinmobiliaria

Nafarroa ibilbidea, 7 – IRUN ☎ +34 943 628 333
info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 60 m², 2 gela, bainugela, egongela, sukaldea, trastelekua, bereganin elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua.
Ref: 04297 109.000 €

Pisua salgai Hendaia
Azalera 65 m², 2 gela bikoitz, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, terraza, trastelekua, beregalu elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua eta bista politekin. Aparkalekua barne.
Ref: 03511 175.000 €

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 80 m², 3 gela, bainugela, egongela bidimiarekin, sukaldea, balkoia, hegoalderuntz, eguzkitsua eta bista politekin. Zaharberritua.
Ref: 04333 155.000 €

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 45 m², 2 gela, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, balkoia, berokuntza eta igogailua. 2000ko erakina.
Ref: 04356 140.000 €

Pisua salgai Irun Palmera
Azalera 65 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, balkoia, trastelekua, igogailua, berokuntza, eguzkitsua.
Ref: 04299 248.000 €

Pisua salgai Hendaia Erdian
Azalera 90 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, berokuntza. Hirugarren pisua, igogailurik gabe.
Ref: 04345 180.000 €

Etxea salgai Hendaia-Behobie
Azalera 194 m², 2.000 m²ko terrenoa, 4 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza, biltegia, berokuntza, jardina, eguzkitsua. Garajea barne.
Ref: 04349 550.000 €

Lokala salgai Irun San Juan
Azalera 40 m², komuna eta eskaparate polita. PRIMERAKO AUKERA!!
Ref: 04305 210.000 €

Lokala salgai Irun Urdanibia plazan
Azalera 25 m², Obra berria.
Ref: 04358 83.000 €

Eskari handiagatik, alokatzeko etxebizitzak behar ditugu!!

AURREMATRIKULA
Maiatzaren 25etik
ekainaren 5era
biak barne

MATRIKULA
Uztailaren 16tik 21era
biak barne

ATE IREKIAK

Erdi Maila: maiatzak 18
Goi Maila: maiatzak 19
18:30ean

IDASOA

Elizatxo, 10
20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tel. 943 666 010
Fax. 943 615 380
secretaria@fpbidasoa.org

www.fpbidasoa.org

2015-2016 IKASTURTEA
ZIKLO ESKAINTZA OSOA
EGUNEZ
Hizkuntza eskaintza A, D eta eleanitza *

*** Gaztelania-Euskera-Ingelesa-Frantsesa**

GOI MAILA

- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA
- DISEINUA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA
- OBRA ZIBILEKO PROIEKTUAK
- SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA AUTOMATIZATUAK
- MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOA
- TELEKOMUNIKAZIO ETA INFORMATIKA-SISTEMAK

ERDI MAILA

- MEKANIZAZIOA
- INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA
- INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK
- TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK